

KANALAK

Gure enpresa bi kanalen bidez komunikatuko da; *on-line* eta *off-line*. Modu horretan, Interneten bidez zein fisikoki publizitatea egiteko aukera izango dugu.

Publizitate *on-line*:

→ “Novak.eus” web-orrialdea

Web-orrialdea *Wordpress*-en bidez egingo dugu eta 2.000€ kostatuko zaizkigu. Web-orri hau mugikorrean zein ordenagailuan erabil dezakete hona etorriko diren ikasleek eta oso erabilgarria izango da ikusteko zenbat pertsona dauden kafetegian momentu guztietan.



→ Facebook

Facebook-en profil publiko bat irekiko dugu gure kafetegiaren argazkiak eta deskontuen oharpenak astero argitaratzeko. Era horretan, kostuak murriztuko ditugu zeren eta *Facebook*-en profila egitea dohainik aterako zaigu.



→ Instagram

Instagram-en beste profil publiko bat irekiko dugu gure kafetegiari buruz ahalik eta gazte gehienek informazioa eduki dezaten eta gure lokalaren argazkiak argitaratzeko.



→ Jardunaldi bereziak

Sei hilabetero pertsona bat etorriko da *Novak*-era hainbat ikasketa metodo azaltzeko gure bezeroei haien ikastaroak ahalik eta gehien errazteko.



Publizitate *off-line*:



→ *Buzoning*

Etxeetako postontzietan liburuxka txikiak utziko ditugu; horren kostua 500€-koa izango da.

→ *Parabrising*

Bestalde, autoetako haizetako batzuetan liburuxka txikiak jarriko ditugu ere, 350€-tako kostuarekin.

- Gurekin harremanetan jartzeko kontsumitzaileek sare sozialen bidez zein mugikorraren bitartez egin dezakete.
- **Telefonoa:** 946565222
- **Sare sozialak:** *Novak* (*Instagram*, *Facebook*) eta *Novak.eus* (web-orrialdea).

Distribuzio kanalak:

Gure kasuan, kontsumitzaileak presentziazko moduan zerbitzatuko ditugu; hau da, *Novak*-era etorri beharko dira gure zerbitzuetaz gozatzeko aukera izateko.

